

EUSKAL POPULUAREN OROITLEKUA

Hastapenetik bukaerara, 1960ko hamarkadan hasi eta 2010 arte, motibazione humanistak eta politikoak bultzatu du Anai Artearen egitekoa. Espainiako diktaduratik ihesi hastapenean eta Espainiako errepresiotik gero, Ipar Euskal Herrirat etorri ehunka iheslari (2.200 inguru) eta haien familiak lagundu ditugu, hainbat gisatara (jendeak etxeetan hartu ditugu, paperak egiten lagundu, haientzat etxeak eta lana atxeman, sinadura- eta atxikimendu-kanpainak egin, agintari eta ministroenagana joan, bitartekotza-lanak egin, bertzeak bertze).

Hauek izan ziren Anai Artearen sortzaileak :

- Telesforo Monzon, Euskal Gobernuako barne ministroa 1936an
- Piarres Larzabal, Zokoako apezka eta frantses erresistentziako komandantea
- Angel Arregi, Javier Zumalde, Iñaki de Allika, Iñaki Hernandorena, Juan Jose Echave, Ximun Haran, Paul Legarralde.

Urte hauetan guzietan, Anai Arteako zenbait kidek utzi gaituzte bidean, hala nola, Mixel Idiart Sarako erretorak, Didier Rouget abokatak eta Frantxua Garat Senpereko erretorak.

OROITLEKUAZ

Azken mende Erdiko historia aitzinekotik ezin bereizia denez, Euskal Herriaren historia orokorra kondatzeko beharrak gaina hartu du. Eta guk ere gure historia kondatu nahi izan dugu Euskal Populuaren Oroitlekuan, gure ikuspegitik, herri ttikiek ere badugulako zer errana.

Gure historia mendez mende markatu duten 22 gertakizunen bidez kondatu dugu, hasi duela 40.000 urte eta Lizarra-Garazin buka, tartean kondatuz erromatarren garaia, Orreagako Gudua, Elkano eta munduari lehen itzulia, euskarazko lehen liburua (1545), karlistadak, bi mundu gerrak, Espainiako gerra zibila eta PNV (Parti Nationaliste Basque) partido politikoaren eta ETA (Euskadi Ta Askatasuna) erakundearen sortzeak.

Baskoietatik euskaldenearat, euskarak eta gu izateko nahiak ekarri gaitu egun arte. Badakigu bere hizkuntza gordetzen duten populuak bere geroaren giltza eskuetan duela.

ETA desegin denetik, Anai Artearen egitekoa finitzera zoala jakinik, ez genuen finitu nahi gure lekukotza utzi gabe. Mende Erdiko ibilbidearen azken emaitza da Euskal Populuaren Oroitlekua.

Lagun hauek parte hartu dute proiektu hontan :

- Luhuson bizi den Dominique Iriart, Hiriberrikoa, lurra emanik.
- Historialariak, gure historia idazten : Xabier Otero Jaurzaharre, Aurelia Arkotxa, Eneko Bidegain, Jean Louis Davant, Iñaki Egaña, Peio Etxeverri-Aintxiart, Claude Labat, Jean Claude Larronde, Battitta Larzabal, Maité Urmeneta eta Nabarralde
- Bideoetan haien boza eman dutenak : Elena
- Phagaburu, Bernadette Luro eta Lierni Elorza.
- Udalbiltza, Anai Artearen segida segurtaturik.
- Senpereko Herriko etxea : baimena emanik.
- Arxitektak, argin ofizialeak eta baratzezainak.

Euskal Herriaren historian mugarri izan diren 22 gertakizunen azalpen-bideo argi, labur (5') eta eleanitzak sortu ditugu.

Lekuan berean den QR kodearen bitartez edo anaiartea-oroitlekua.eus gunean sartuz begiratzeko ahalko dira.

Oroitlekua 918 bide nagusiaren eta Donibane Lohizuneko bide zaharraren tartean kokatua da.

Proiektu hau ez da hemen fini, historia egiten segituko baitugu.

Oraino luzaz izaten segitu dezagula.